

# **KIROLBUY**

## **Funtsezko baliabideak:**

### Baliabide fisikoak:

Guk, bideoak, lanak, planifikazioak egitean, Julenen etxean elkartzen gara, lokal horretan baliabide fisikoak dauzkagu, adibidez: lau orenagailu (bat bakoitzerako), telefono-mobilak, pantaila berdea gure bideoak hor grabatzeko, eta kamara bat bideoak egiteko.

### Baliabide intelektualak:

Gure taldean, denok pentsatzen dugu ideiak nola egiteko bideoak, baina Josuk bereziki ideia gehio botatzen ditu, eta baliabide hori garrantzitsua da bideo originalagoak eta hobeagoak egiteko. Hortaz aparte, Asierrek informatika asko menperatzen du eta asko laguntzen digu bideoak editatzeko, edo efektuak jartzeko.

### Giza baliabideak:

Julenek, merkataritza-trebetasun asko ditu, hau da, beste enpresekin harremanetan jartzeko oso ondo daki zer jarrera jarri behar duen eta nola hitz egin behar duen. Beste kasu bat, Mikelek organizatzean, laguntza asko eskaintzen du, ordutegiarekin bereziki, hau da, eguna planifikatzerakoan berak ordu bakoitzean zein zer egin behar duen planifikatzen du eta ordutegi hori jarraituz oso eroso egiten dugu gure lana.

### Finantza-baliabideak:

Gure aurrezkiak erabiltzen ditugu.